

BATXILERGOA GURASO BILERA OROKORRA

2018-19 IKASTURTEA



Zuzendaritza taldea

Zuzendaria

Gaskon Etxeberria Irure

Ikasketa burua

Ane Zubizarreta Gerendiain

Orientazio burua

Araitz Olaiz Leibar

TALDEEN OSAKETA

- 2 A gela:** 28 ikasle. Tutoreak: Agurtzane Agirre
14 ikasle Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa eta 14 ikasle Zientzien Batxilergoa
- 2 B gela** 27 ikasle. Tutoreak: Andrea Etxaniz eta Txema Marin
14 ikasle Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa eta 13 ikasle Zientzien Batxilergoa
- 2 C gela** 27 ikasle. Tutoreak: Amaia Laka eta Txema Marin
11 ikasle Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoa eta 16 ikasle Zientzien Batxilergoa

IKASGAIEN BANAKETA

IKASGAI KOMUNAK

- Euskara eta Literatura II
- Gaztelania eta Literatura II
- Atzerriko Lehen Hizkuntza II (Ingelesa)
- Historia

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK	ZIENTZIAK
<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II edo Latina II -Enpresaren Ekonomia -Geografia -Artearen Historia -Filosofiaren Historia 	<ul style="list-style-type: none"> - Matematika II - Fisika - Kimika - Biologia - Marrazketa Teknikoa II

AUKERAKO IKASGAIK

- Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza II (Frantsesa)
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia II (IKT)
- Psikologia
- Adierazpen Grafiko Plastikoak
- Administrazio eta Kudeaketaren oinarriak.

GURASOEKIN HARREMANAK

Bilera orokor honetaz gain, tutoreek indibidualki izango dute gurasoekin harremana semearen /alabaren egoera akademikoaz jarduteko, besteak beste. Gurasoek ere edozein momentutan eska dezakete kontaktua.

EBALUAZIOAREN INGURUKOAK

Hiru ebaluazio dira. Egunean bi azterketa egiten da lau egunean. Bitartean klaserik ez dago. Ebaluazioan zehar bestelako azterketak, kontrolak-edo egin daitezke, irakasle bakoitzak gaiaren garapenerako beharrezkoa ikusten duen neurrian.

Ebaluazio bakoitzean informe idatzia jasoko dute gurasoek Alexia plataformaren bidez.

Gaia gaintzen ez bada errekerazio azterketak daude. Horiek ere, klaseak etenda egiten dira, aste batzuk geroago. Errekuperazio azterketak egin ahala, notak ahoz emango zaizkie; bai eta idatzizko informea ere.

Azterketara etorri ezin denean, egunean bertan abisatuz gero eta egiaztagiria ekarrita, ez da azterketa aukera galtzen. Egin ez den azterketa errekerazio egunean egiten da edo irakasleari ongi datorkionean. Ikasleak beste aukera bat izango luke gaintitu ezean. **Baina 1. eta 2. deialdietan ez da aldatzen azterketa egunik.**

AZKEN EBALUAZIOA ETA KURTZO BUKAERARI BURUZKOAK

Maiatzaren erdialdera klaseak bukatu eta 3.ebaluazioko azterketak egiten dira (maiatzaren 7, 9, 10 eta 13). Jarraian (maiatzaren 16, 17, 20 eta 21) lehenengo deialdiko azterketak izango dira. Azterketa horietan, aurreko ebaluazioetan edota 3. ebaluazioan gaintitu gabe gelditu diren gaiak gaintitzeko aukera dago.

Dena gaintitu duten ikasleak, Batxilergo titulua eskura dezakete eta Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE) aurkez daitezke. Azterketak amaitu eta gero, USE prestatzeko klaseak izango dira. Frogaren egunak EHUK finkatzen ditu. Aurten ekainaren 6, 7 eta 8an izatea espero da.

Gairen bat gaintitu gabe utzi duten ikasleek, errekerazio klaseak dituzte 2. deialdia prestatzeko. Bigarren deialdiko azterketak ekainaren 13, 14 eta 17an izango dira, eta gaintituz gero, sarbide frogako 2. deialdira joateko aukera izango dute (uztailaren lehen astean izango dela aurreikusten da).

FUNTZIONAMENDU ARAUEI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Araudia eskuragarri dago web orrian, bai euskaraz baita gazteleraz ere.

Asistentzia derrigorrezkoa da, eskola orduro kontrolatuko da eta argitu gabeko hutsuneen berri emango zaie gurasoei. Egiaztagiriak ekartzeko ardura guraso eta ikasleena da, ez du irakasleak ari behar eskaka.

Irteeretara joatea ere derrigorrezkoa da, kurtso jardueraren aktibitatea baitira.

Erretzeari buruz: legeak dionez, ikastolako eremu osoan debekatua dago erretzea.

Klasera ez joateko proposamenez: protokolo zehatz bat dago eta betearazten da. Klasean geratu nahi duenak, jarduera akademikoa bermatua du. Ordu lektiboan galera handiegia aurreikusten bada, eskolak emango dira ikasketa programak bete daitezzen.

Kurtso bukaerako ikasketa-bidaiaz : ikus bukaerako eranskina.

Ikasleen gauza baliotsuen erantzukizuna ekartzen duen ikaslearena da.

Esku-telefonoek beti isilean eta jasota egon behar dute eskola orduetan.

Gela bakoitzetik guraso ordezkari bat behar da.

BOTIKAK

Ez dugu botikarik emango horretarako baimena ematen ez bazaigu.

MATERIAL ESKOLARRAREN KOBRAKETA

Eskola materiala (fotokopiak,...), apirilean kobratuko da.

UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOA (USE)

Praktikan 2009-10 ikasturtean ezarri ziren Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE) irizpide ia berdinak jarraitzen dute indarrean. Honela, bi proba egiteko aukera sortzen da: orokorra edo eta espezifiko ere bai, nota igotzeko. Bestalde, fakultatearen arabera Batxilergoko gai batzuk gehiago baloratzen dira beste batzuk baino, etab.

Froga honetara aurkeztea edo/eta gainditzea ez da derrigorrezkoa titulua lortzeko.

Informazio honen berri zehatzagorik, otsaila aldera emango dizuegu antolatu ohi dugun gurasoentzako saio berezi batean, ordurako ikasleek zenbait erabaki garrantzitsu hartu beharko dute eta.

AHOLKU OROKORRAK

Egunero lan egin beharra dago etxean. Ez da mugatu behar irakasleak eskatutakora. Lanak ezin dira pilatu, azterketa egunetara prestatuta iritsi behar da.

Irakasleak prest daude zalantzak argitzeko, berriro esplikatzen eta, laguntzeko, baina ikasketen ardura ikasleak hartu behar du.

Espedientearen notaren garrantziaz jabetu behar du ikasleak. Ondorengo zenbait ikasketa egiteko nota bat eskatzen zaie. Batxilergoko nota, 1. eta 2. kurtsoetan egindako gai guztien batez bestekoa da. (Espedienteko notaren % 60). Azken probako notak espedienteko notaren % 40 balio du.

IRTEERAK ETA BESTE

Gehienak zehaztuak daude, hala nola:

1. hiruhilabetekoan:

- Irailaren 29an, Albaolara bisita. Bertako ondare historiko eta kulturala ezagutzera.
- Orientazioarekin lotuta, eta behar adina interesatu bilduko balitz, hala nahi duten ikasleak Deustora (Donostia) joango dira azaroaren bukaeran.
- Tecnun-era ere joango dira behar adina interesatu biltzen badira, hala nahi duten ikasleak, abendua hasieran.

2. hiruhilabetekoan:

- Martxoan Euskal Herriko Unibertsitateko Campusetara bisitak egingo dituzte (Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabakoak), orientazio programaren barruan.
- Martxoan gairen batekin lotutako irteera bat egingo dute.
- Frantseseko ikasleek Martxoan 4 egunez Paris bisitatuko dute.

EGA AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

EGA titulua lortzea bultzatu nahian, azterketa prestatzeko zenbait saio antolatuko dira AEK euskaltegiarekin batera. Eskolaz kanpoko saioak izango dira, arratsaldez.

Ikastolak kurtsoaren zati bat ordainduko du parte hartu nahi duten ikasleentzat.

ALEXIA PLATAFORMA

Ikasturte honetan Alexia erabiltzen jarraituko dugu. Gogoratu ebaluazioko emaitzak Alexia bitartez bakarrik helaraziko direla. Norbaitek arazoren bat balu, zuzendaritzarekin kontaktuan jarri dadila.

AUTOBUSA

Aurten lehenengoz, Errenteriako ikasleentzat eskolara etortzeko autobus urbanoa erabiltzeko aukera jarri da martxan. Autobus enpresatik jakinarazi digute, eta horrela jakinarazi nahi dizuegu, autobusak ikasle guztiak sartzeko nahiko handiak direla (105 plaza). Eskatu digute tapoiak ekiditea ahal den neurrian, gertatu delako tapoi hauen ondorioz ikasleak behar den bezala ez banatzean autobusean, eta espazio arazoak egotea autobuseko zona batzuetan, beste zona batzuetan tokia libre zegoenean.

2.MAILAKOEN IKASBIDAIAZ

Oiartzo Batxilergo Ikastolaren sorrera urtetik, ikas bidaiaren antolaketa ikasleen esku dago, ez da ikastolaren ekintza. Ikastolak ez du bere gain hartzen ikas bidaiaren antolaketa, ikasleen ekimen bat izanik.

Ikasleen adina, heldutasun maila eta gaitasunak kontuan hartuta, arazorik gabe aurrera eraman dezaketen ekintza da, eta beren formazioan jarduera positibotzat jotzen dugu.

Hala ere, hurrengo atalean ikastolaren parte-hartzea norainokoa den zehaztu nahi da, eta zertarako konpromisoa hartzen duen. Ikastola konprometitzen da:

1. Bidaiaren antolaketan ikasleek ematen dituzten urratsak behatzera.
2. Arazo iturririk ikusiko balitz, gurasoei informatzera.
3. Bidaia antolatzeko aurkezten diren entitateen edo pertsonen egokitasuna baloratzera eta fidagarria edo ezaguna izatea bultzatuko du.
4. Ikasleei antolakuntzarako ikastolako instalazioak uzten, beti ere ordu libreetan.
5. Ikastetxeak ikasleei ziurtatu behar dien "ikasle gela" denda bezala erabiltzen uztera, bidaiarako diru-iturri gisa.
6. Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du urtero 2. mailako guraso nahiz legezko ordezkari direnei honen guztiaren berri emateko.

Azkenik, Oiartzoko Klaustro eta Zuzendaritzaren iritziz, zera esan beharra dago: ikas bidaia bakarra bultzatzen saiatu behar da, eta ez talde desberdinak leku desberdinetara edo garai desberdinetan. Bestalde, eta ikuspegi akademikotik begiratuta, irakasleok bidaia batxilergoko azken proba pasatakoan egitea gomendatzen dugu.

EGUTEGIA 2018-2019



URRIA							AZAROA							IRAILA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28
29	30	31					29	30	31					29	30	31				

URTARRILA							OTSAILA							MARTXOA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28
29	30	31					29	30	31					29	30	31				

APIRILA							MAIATZA - 2. maila							EKAINA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28
29	30						29	30	31					29	30	31				

MAIATZA - 1. maila						
A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

1	Ikasurte hasiera eta amaiera
1	Jai egunak eta oporrak
1	Ebaluazio egunak
1	Errekuperazioak
1	Lehenengo deialdia
1	Bigarren deialdia

OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA

Zamalbide auzoa z/g
20100 Errenteria-Orereta

Tel.: 943 52 38 04 – 943 52 03 97

oiartzo@ikastola.net

www.oiartzoikastola.net

BULEGO ORDUAK

07:45etik 16:30era